



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Emakumea, arraza, klase soziala

HIRU EZAUGARRI horiek bat egiten dute Angela Davisengan, joan zen gizaldiko 70eko urteetan gazte ginenontzat oso ezagun bihurtu zen emakume afroamerikarra. Nor dugu Angela Davis?

Duela 69 urte Alabaman –AEBetan– jaio zen esklabo jatorriko familia batean, lurralde honetan arraza bereizkeria gori-gori zegoen garaian. Bere gurasoek, batak zein besteak, beltzentzat soilik egindako ikastetxeetan egin zituzten ikasketak, Angela ez zen salbuespena izan. Lehen Hezkuntza eskola horietako batean burutu zuen, zurien eskolak baino baldintza askoz okerragoetan. Bere auzoari Dinamyt hill –Muin dinamitua– deitzen zioten, Ku Klux Klanekoek maiz leher-tzen baitzituzten dinamitaz familia afroamerikarren etxeak.

Hamalau urte zituelarik New Yorkera joan zen bizitzera amarekin. Hiri horretan beltzak eta zuriak berdintasunean ikas zezaketen ikastetxe batean bigarren hezkuntza bukatu zuen. Ibilbide luze baten ondoren filosofian graduatu zen. Doktoregoa Herbert Marcuse filosofoaren gidaritzapean lortu zuen. Kalifornian Los Angelesko Unibertsitatean irakasle lanetan hasi zen.

Angelak ihes egin zuen, FBIk kriminalik bilatuenetako bat bihurturik, mundu osoan ezagutu genuen heriotza epai izateko arriskuan zegoen andre ausart hura. Azkenik, New Yorkeko motel batean aurkitu, espetxeratu eta epaitua izan zen, hamasei hilabete gelaxka batean igaro ostean

Arraza beltzaren eta emakumearen askatasuna klase borrokatik at ezin direla geratu pentsaturik, 1968 urtean AEBetako Alderdi Komunistako kide egin zen. Urte horietan espetxeratuta zeuden pertsonen bizi baldintzak hobetzeaz arduratu zen. *Soledad brothers* izeneko auzian sartuta zegoelarik, 1970eko abuztuaren zazpian hilketa batzuk gertatu ziren Soledad anaiak epaitu behar zituen epaitegian.

Angelari leporatu zioten hiltzaileek erabili zituzten armen jabe izatea.

Angelak ihes egin zuen, FBIk kriminalik bilatuenetako bat bihurturik, mundu osoan ezagutu genuen heriotza epai izateko arriskuan zegoen andre ausart hura. Azkenik, New Yorkeko motel batean aurkitu, espetxeratu eta epaitua izan zen, hamasei hilabete gelaxka batean igaro ostean. Pertsona zuriak soilik osatutako epaimahai batek errugabetzat jo zuen auzi guztietan. Orduan, Kaliforniako gobernadore Ronald Reaganek galarazi zion lurralde horretako unibertsitateetan klaseak ematea. Hala ere, gaur egun Kaliforniako Santa Cruz Unibertsitatean irakasle lanetan dihardu.

Ez da denbora luze *Emakumea, arraza, langile klasea* bere liburua ezagutu dugula. Saiakera sakon, argi eta zehatz honen bidez emakume beltz eta esklaboen bizitza erakusten digu bere gordintasunean, ohar-tarazten gaitu ere andre horien askatasunaren bideak eta emazte zurien feminismoak nola elkar gurutzatu ziren, hauek askotan haien zapaltzaile bihurtzen zirelarik.

“Sistema esklabistak esklabo beltzak ondasun higigarritzat hartzen zituen, emakumeak gizonak lez ekonomikoki errentagarriak, lan indar banakakoak bezala hartuak ziren, generorik gabekoak euren jabeentzat. Andre esklaboa lanaldi osoko langilea zen, noizbehinka soilik emazte, ama edo etxeokandre”.

Davisek zera kontatzen digu ere, emakume esklaboez gizonengandik dituzten desberdintasunagatik modu berezian sufritzen zutela: sexu gehiegikeriak, andreek bakarrik jasan zitzaizkien tratatu txarrak.

Angelak adierazten du esklabotza garaietatik aurrera sexualitatea bereziki azpimarragarria izan dela afroamerikarrentzat. Sistema esklabistak askatasun ekonomikoa edo politikoa ukatu ziela esklaboei, baina ez askatasun sexuala, jauri horien ugalketa komeni baitzitzaien. Libreak ez ziren pertsonentzat sexua askatasun adierazpenaren errealitate ukigarria bihurtu zen. Gaur gazte suminduengan konfiantza osoa duela adierazi du, horiek baitaukate sua. ■

